



# Txikiak handi

"Chiquetz pero grans"




Xabier, Joane, Izaro eta Naroa

# GAIAREN AURKEZPENA


Unitate honetan, munduko eleaniztasunaz eta hizkuntzen kopuruaz hitz egingo dugu, hau da, gure hizkuntzen tamainari buruz, nagusiki.

Hemen behean, munduan gehien hitz egiten diren hizkuntzen mapa ikusi dezakegu. ←



# MUNDUKO ELEANIZTASUNA ETA HIZKUNTZA KOPURUA

- 7000 hizkuntza inguru daude munduan
- Hizkuntza aniztasunarengatik eleaniztasuna biziki hedatua dago munduan zehar. Halere, politika kolonizatzaileek eta, ondotik, asimilatzaileek kalte handia egin diote hizkuntza aniztasunari, eta azken hori murriztuz doa.



# MUNDUAN HIZTUN GEHIEN DITUZTEN HIZKUNTZAK

- Txinera: Guztira 1300 milioi hiztun inguru ditu.
- Hindustanera: 970 milioi hiztun mundu osoan.
- Gaztelania: 550 milioi hiztun mundu osoan.
- Ingelesa: 328 milioi
- Arabiera: 260 hiztun
- Portugalera: 230 hiztun mundu osoan.
- Bengalera: 203 milioi hiztun.
- Errusiera: 130 milioi hiztun.
- Japoniera: 125 milioi hiztun.



# KOKAPENA ETA BIZITASUNA MUNDUKO HIZKUNTZEN ARTEAN

Munduko hizkuntzen bizi-indarra edo “pisua” neurtzen dituen barometro honetan, inoiz baino hizkuntza gehiago sailkatu ziren iaz. 500.000 hiztun baino gehiago dituzten munduko 563 hizkuntzak neurtu eta sailkatu dituzte. Eraitza honetara iristeko aintzat hartu diren faktoreak honako hauek izan dira: hiztun kopurua, entropia (hiztunen proportzioa, bizi diren herrialdeetan), zenbaten lehen hizkuntza den, ofizialtasuna, hizkuntza horretatik itzultitako liburuak, hizkuntzara horretara itzultitako liburuak, Literatura Nobel sariak, Wikipediako artikuluak, Giza-garapenaren indizea (hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako batez bestekoa, NBERen datuen arabera), ugalkortasun-tasa eta Interneteko barneratze-tasa.

Euskara, munduko 51. hizkuntza da. Hau da, Calvet barometroak euskara 9.postuan kokatzen du, milioi bat hiztun inguru dituelako.



# GURE HIZKUNTZAREN OSASUNA UNESK



UNESCOK arriskuan dauden hizkuntzak sailkatu ditu. Honela, euskara egora zaugarrian kokatu du. Hau da, ume gehienek badakite, baina erabilera eremu batzuetan, soilik, erabiltzen dute.

BIZITASUN MAILA	HIZKUNTZAREN BELAUNEZ BELAUNeko TRANSMISIOA
Arriskurik gabe	Belaunaldi guztiek hitz egiten dute hizkuntza eta belaunez belauneko transmisioak ez du etenik. Ez da atlas-ean sartzen.
Zaugarria	Haur gehienek hitz egiten dute hizkuntza, baina erabilera zenbait eremutara mugatuta egon daiteke (familia girora, adibidez).
Arriskuan	Haurrek jada ez dute ikasten ama-hizkuntza gisa.
Arrisku nabarmena	Aiton-amonak eta belaunaldi zaharretako partaideek bakarrik hitz egiten dute hizkuntza. Gurasoen balaunaldiekoek, ulertu badezakete ere, ez dute beraien artean erabiltzen, ezta seme-alabekin ere.
Arrisku larria	Hiztun bakarrak, aiton-amonak eta belaunaldi zaharretako partaideak dira, baina guztitan eta oso modu partzialean darabilte hizkuntza.
Desagertuta	Ez da hiztunik geratzen. Atlasak, 1950. urtetik aurrera desagertutako hizkuntzen erreferentzia dakar.

## GALDEKETAREN BIDEOA

Hemen behean gure herrian egindako galdeketa daukagu. Hori egiteko, jendeak euskara 0-10 eskala batean sailkatu behar zuen hiztun kopurua kontuan hartuz. **Ikus dezagun ↓**





## ONDORIOAK ETA AMAIERA:

Bi barometroetan ikusi dugunez, euskararen tamaina ez da gehienok pentsatzen dugun bezain txikia, izan ere, Calvet eta Ethnologue eskalek posizio altuan kokatzen dute gure hizkuntza. Halere, Unesco barometroan ikusi dugun bezala, osasunari dagokionez, euskara egoera zaurgarrian dago, hau da, arriskuan. Beraz, gure ustez, Euskaraz gehiago hitz egin beharko genuke egoera hobetzen laguntzeko.

